

DONOSTIAK ELEKTROMUGIKORTASUNAREN GAINEAN DUEN IKUSPEGIA AZALDU DU BRUSELASEN

Joan den Apirilaren 6an, "Elektromugikortasunean aplikatutako Garraioaren Sistema Adimendun"en gaineko Foruma ospatu zen Bruselan ERTICO ITS Europa erakundeak antolatuta. Forum horretan Donostiak Elektromugikortasunaren gainean duen ikuspegia azalduko du.

Elektromugikortasuna, gaur egun, aukera bat da hiri guneeetan mugikortasun iraunkorragoa izateko, eta azken urteotan asko garatu da. Hori dela eta, gai izarra izango da ERTICOk antolatuko duen hurrengo forumean ("Garraioko Sistema eta Zerbitzu Adimendunen Sarea Europan"); izan ere, forum horretan Garraioko Sistema Adimendunen mehatxuak eta aukerak aztertu eta eztabaidatuko dira, bai eta ibilgailu elektrikoen garapena bultzatzeko zerbitzuak ere, hiritarrei egokitutako ikuspegi batetik.



Foroan, Donostiak oso zeregin garrantzitsua izango du lan saioetako bat gidatuko baitu. Gerardo Lertxundik bilera batean hartuko du parte Donostiako Udalaren ordezkarietan, eta bilera horretan ere Europar Batasuneko goi kargundunek hartuko dute parte eta I+G arloko ordezkari diren munduko enpresa garrantzitsuenak, besteak beste Siemens, Nissan, Vattenfal, Continental, Orange edo Logican.

Donostia lantalde hau gidatzeko aukeratzeak esan nahi du berriro ere onartu dela Donostia adibide ona dela Europan mugikortasun iraunkorrari dagokionez. Donostia liderra da dagoeneko Europan Garraio Publikoaren erabilerari dagokionez, eta Elektromugikortasunaren esparruan, Donostia guztiz lerratuta dago EBk 2050erako finkatutako helburuekin, hau da, hiriguneen barruan dabilzan ibilbide guztiak elektrikoak izan beharko luketeela planteatzen duen helburuarekin.